lehiaketa bidez bete eta zerbitzua martxan jartzeko. Izan ere, hasiera batean plaza sortzeko beharra ikusi bazuten, zuzenena gaur egun jada pertsona bat lanean aritzea izango litzateke, herritarra atenditzeko zerbitzuaz hitz egiten ari direlako, zeinetaz asko hitz badute ere, beste urte batez plaza bete gabe utziko baita. Bestalde —beste taldeek ere aitatu dute—, uste du, jada erabakia hartuta dagoen gai bat planteatzeko asmoa dagoela. Bere iritziz, judizial kontuak eta udal erabakiei dagozkionak nahasten saiatzen ari dira. Izan ere, Udal honek era batera interpretatu zuen epai judizial bat, Udalbatzaren gehiengoa ados zegoelako modu jakin batean aplikatzeko, justu alderdi nagusiak nahi ez zuenean. Gainontzekoak —dio— Udalbatzaren gehiengoak alegia, etxe honetako ordezkari sindikalek errebindikatzen zuen eran aplikatzearen aldekoa ziren. Eta alderdi sozialistak epaia ez zuenez akatatu nahi, Udalbatza honek osoko bilkura batean erabakitakoa berrinterpretatu zuen, gero nahi zuena aplikatzeko. Hau da, Udalbatzak erabaki zuenaren aurka. Ondoren, esan du gaia epaitegietan dagoela, afektatuei ez zitzaielako beste irtenbiderik geratu, hain zuzen zinegotziak ez direlako gai izan aurrera eramateko hartu zuten erabakia, eta egoera gehiago argitu artean, itxaroten, zain, egon beharko dute. Ondoren, esan du lanpostu zerrendaz hitz egiten dutenean, eta proposamenak duen eraginaz, hainbat lanpostu bete gabe uzten direla ikusten dute, eta hori atxiki gabeko zinegotziek zerbitzuaren kalitatearen murrizketarekin lotzen dute zuzen-zuzenean. Zentzu komunaren arabera langile gutxiago izanez gero zerbitzua emateko, kontu jakina da, kalitatea jaitxiko dela, nabarmendu du. Gaineratu duenez, hamahiru lanpostu hutsez hitz egiten ari dira, eta horrek, besteak beste, esaterako, Hirigintza Saila gutxiengoetan uzten du, ez delako ez administrari-plaza bat betetzen, ezta arduradunena ere, eta ondorioz, esango diote zer nolako zerbitzua eman dezaketen atal horretatik. Bestalde, beste

puestos que son muy antiguos y que por su antigüedad tampoco deberían ser separados. En este caso se refiere a la plaza del TAG, puesto que fue creado hace muchos años y del que todavía no han sido capaces de poner en marcha el concurso para cubrirlo. Si en un principio vieron la necesidad de crear esa plaza, lo lógico es que a día de hoy ya estuviese trabajando alguna persona en ella, porque están hablando del servicio de atención al ciudadano, algo con lo que se “les llena la boca” en numerosas ocasiones. Sin embargo, un año mas, se deja esta plaza vacía. Por otro lado, refiriéndose a un tema que ya ha sido mencionado por el resto de los grupos, cree que hay intención de volver a plantearse una cuestión que, en su opinión, ya está decidida. Añade que se está intentando confundir el tema judicial y el tema de las decisiones municipales. Hubo una sentencia judicial de la que esta Corporación hizo una interpretación, estando de acuerdo la mayoría de la Corporación en que se debería aplicar de una determinada manera, que es, justamente, la que el partido mayoritario no quería. El resto, la mayoría de la Corporación, apostaba por aplicar la sentencia de la manera que estaban reivindicando los representantes sindicales de esta Casa. Añade que como el partido socialista no quería acatar la sentencia, lo que hizo fue reinterpretar lo que se decidió en un Pleno de esta Corporación aplicando lo que querían. Es decir, en contra de lo que la Corporación había aprobado. Sigue diciendo que el tema sigue en vía judicial porque a los afectados no les ha quedado otro remedio, ya que los Concejales han sido incapaces de llevar adelante el acuerdo que adoptaron y tendrán que esperar a que haya una nueva sentencia judicial que consiga aclarar más la situación. Continua diciendo que cuando hablan de la relación de puestos de trabajo y la incidencia que tiene la propuesta, ven que se dejan sin cubrir una serie de puestos de trabajo, lo que los Concejales no adscritos relacionan directamente con una reducción de la calidad del servicio. Es de

departamentu zenbaitetik behar zenbait planteatzen direnean, ez zaie inolako erantzunik ematen, hain zuzen, ez direlako kontuan hartzen ere. Behar horiek —dio— teknikariek sumatzen dituzte, horiek dutelako determinatu ahal izateko informazio guztia. Ezgaitasuna duten pertsonei gordetako postuak %5 izan behar dutela eta, berak nahiz eta irakurri duen gai horri buruzko txostena, uste du ez duela argi eta garbi uzten Legea arlo horretan betetzen duen edo ez. Horrez gain, atxiki gabeko zinegotziak ohartu dira lanpostu zenbait lanpostu-zerrendatik kendu beharko liratekeela —legegintzaldiaren hasieratik argi eta garbi utzi duten iritzia—, eta horrek gastu publikoan aurreztea ekarriko luke. Behin-behineko izaera duten lanpostuez ari da, eta horien artean, udal talde politikoen idazkariak daude, hain zuzen, euren aburuz, talde politikoak euren kabuz jarduteko gauza izan behar dutelako, eta koste hori ez zaio herritarrei kargatu behar. Argitu duenez, alde batetik gastuaren igoeraz hitz egiten ari badira ere, bestetik, gastua murrizteaz ari dira. Zentzu horretan, atxiki gabeko zinegotziek planteatzen dute Udal honek emanda dituen dedikazioei buruzko azterlan berri bat egitea. Euren iritziz neurriz kanpokoak dira, eta zerbitzu hori emateko dedikazio berezia ez bezalako formula bilatu beharko litzateke, zeren eta, urte amaieran azaltzen diren datuen arabera, langile horiek, ziur aski, ez

sentido común que si tienen menos personal para ofrecer los servicios, estos, lógicamente, pierden en calidad. Añade que están hablando nada menos que de trece vacantes, lo que, entre otras, deja la sección de Urbanismo bajo mínimos porque no se cubre ni la plaza de Administrativo ni la del Responsable, por lo que ya le dirán qué tipo de servicio pueden desarrollar desde esa sección. Por otro lado, dice, hay ciertas necesidades que se plantean desde los distintos departamentos a las que no se les da ninguna respuesta ya que no se tienen en cuenta. Dichas necesidades son detectadas por los técnicos, que son los que tienen toda la información para poder determinarlas. En cuanto al 5% de puestos reservados a personas con incapacidades, indica que aunque lea el preceptivo informe técnico, no llega a determinar con claridad si se cumple o no la Ley en ese aspecto. También los concejales no adscritos han detectado determinados puestos de trabajo que deberían ser eliminados de la relación de puestos de trabajo –opinión que han dejado clara desde el principio de la legislatura-, lo que supondría un ahorro en el gasto público. Se refiere a los puestos que tienen carácter de eventuales y, entre ellos, las secretarías de los grupos políticos municipales, ya que piensan que los grupos políticos deben ser autosuficientes y que ese coste no se debe cargar a los ciudadanos. Aclara que, por un lado

dituzte betetzen dedikazioagatik sartu beharreko orduak. Diru-kopuru garrantzitsu batez hitz egiten ari dira, eta uste dute kontua birplanteatu behar dela, batez ere, langileria-gastuak murriztu ahal izateko, horixe delako proposamen honen helburua. Amaitzeko, uste dute, Udal honetan daramazkiten urteek ematen dien eskarmentuarekin esan dezaketela beharrezkoa dela azterlan bat, hain zuzen herri honetako Udalak dituen beharrei egokituko litzatekeen lanpostu-zerrenda egokitzeko. Lehengoa zaharkitua geratu delako, lehenbailehen abordatu beharreko kontua dela pentsatzen dute.

están hablando de aumento del gasto, y por otro, también, de disminución del gasto. En ese sentido, los Concejales no Adscritos plantean que se haga un nuevo estudio sobre las dedicaciones que tiene concedidas este Ayuntamiento. Creen que son desproporcionadas y que se tiene que buscar otra fórmula para cubrir ese servicio distinta a la dedicación especial, porque, según los datos que suelen aparecer a final de año, ese personal, probablemente, no cumple las horas que tiene de dedicación. Están hablando de una cantidad importante y cree que el tema se tiene que replantear



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

fundamentalmente para reducir el gasto de personal, que es uno de los objetivos de esta propuesta de aprobación de los puestos de trabajo. Para finalizar cree, con la perspectiva que les da la experiencia de los años que llevan en este Ayuntamiento, que es necesario hacer un estudio que establezca la relación de puestos de trabajo que al día de hoy necesita este municipio para ajustarse a las necesidades del Ayuntamiento. Creen que es una cuestión que se debe abordar con la mayor celeridad posible porque se ha quedado obsoleta.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) uste du gertakari zehatzei buruzko interpretazioa diferentea egin litekeela, esaterako, %1 aplikatzeari buruz. Izan ere, gai berari buruz bi juez konklusio ezberdinetara irits daitezkeela hitz egiten ari badira, nola harrituko dira gainontzekoek irakurketa diferenteak egiteaz. Haatik, berak ez dezake onartu gertakari jakin batez irakurketa diferentea egiteagatik, bat ehuneko ehunean zintzoa izatea, eta bestea, fede txarrekoa izatea. Bere aburuz logikaren barruan interpretazio diferenteak egin litezke. Ondoren, nabarmendu du %1 erabat logikatik kanpo ikusten duela, zeren eta, ez litekeelako Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen propio bat eduki eta, aldi berean, Espainia mailan dituzten abantailak aprobetxatu. Bere aburuz ez dira bateragarriak. Bere iritzia da, nahiz eta badakien ez duela gauza askotarako balio. Edonola ere, berari deigarria egiten zaio Hirigintza departamentuak jendea soberan zegoela entzutea edo ez zutela nahikoa ekoizten, eta orain zalantzan jartzea langileria gehiago behar duten. Berak ez daki nola defendatu daitezkeen bi jarrerak. Izan ere, hemen eta beste batzordeetan esan izan da Hirigintza Sailean jende gehiegi zegoela eta langile asko soberan zeudela. Gauza bera gertatu zen Ponte jaunarekin, gaineratu du. Beharrezkoa ahal zen Ponte jaunak lanean jarraitzea erretirua hartzeko

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) cree que cabe la interpretación sobre hechos concretos, por ejemplo, respecto de la aplicación del 1%. Cuando están diciendo que dos Jueces pueden llegar a conclusiones distintas sobre un mismo tema, como se van a extrañar de que el resto de los mortales puedan hacer distintas lecturas. Lo que no puede admitir es que ante una lectura de un hecho concreto, uno sea honesto cien por cien y el otro tenga mala intención. Cree que lo que se producen son distintas interpretaciones dentro de la lógica de cada situación. A continuación recalca que el hecho del 1% lo encuentra totalmente injusto, ya que no se puede tener un convenio propio de esta Comunidad Autónoma y, al mismo tiempo, pretender aprovechar las ventajas que haya a nivel de España. Considera que son incompatibles. Es su opinión aunque no sirva para gran cosa. En todo caso, es curioso que aquí haya habido manifestaciones en el sentido de que el Departamento de Urbanismo sobraba o sobre que la gente no está produciendo lo suficiente con su presencia, y ahora se cuestiona que no tenga necesidad de personal. No sabe como se pueden defender las dos posturas. Se ha dicho aquí y en otras comisiones que el Departamento de Urbanismo está sobredimensionado y que en el sobra mucho personal, y, al mismo tiempo, que le falta personal. Es el mismo caso que se ha



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ordua iritxi zitzaionean, galdetu du. Berak baietz uste du, justuki Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotziak), egin gabe utzi delako, salatu duena egiteko: Plan Orokorra. Hau da, eskarmentu handia duen pertsona horrekin kontatu ezin izan dugunez, geratu da Plan Orokorra egin gabe, eta horretan lanean ari beharko zuketelako. Beste behin —dio— tuputs egiten dute beharrak eta baliabideek, gaineratu du. Haren iritziz ere, egia da birplanteatu behar dela langile-plantila, eta azterlan bat egin behar dela departamentuak ondo dimentsionatuta ote dauden ikusteko, baina uste du

beti bereizi behar direla zer den beharrezkoa eta zer egin dezaketen. Ondoren, esan du langile-dotazioak murriztu direla, lanpostuak bete gabe utzi, eta, era berean, beste gastu asko murriztu. Alabaina, datu guztien arabera, gastuak murrizten jarraitu behar dute. Batzuentzat lehentasuna talde politikoen idazkariak murriztea izango da, eta beste batzuentzat, lehentasuna beste gauza batzuek hartuko dute. Hala, zerbitzuen kalitatez hitz egiten dutenean, eta herritarren beharrak atenditu behar dituztela esaten dutenean, hori zerbitzu guztietara zabaldu behar dela errekonozitzen da. Aldiz, zinegotzien kudeaketaz hitz egiten dutenean, bikoiztu egin behar dutela pentsatzen da; supermanak izan eta egunean 28 ordu lan egin. Haren aburuz, talde politikoek euren lana behar bezala egiteko ordenagailuak, langileak, tenikariak, etab. behar dituzte. Berak halaxe uste du. Amaitzeko, uste du onartzeko ekarri den lanpostu-zerrenda zuzena, egokia eta posible dena dela.

mencionado sobre el del Sr. Ponte: ¿Era necesario que el Sr. Ponte se mantuviera en activo cuando cumplió la edad de jubilación?. Él opinó que sí precisamente para que se pudiera realizar lo que el Sr. Murua (Concejal no adscrito) ha denunciado que no se ha cumplido: el Plan General. Es decir, que es al no poder contar con los servicios de esa persona, de reconocida experiencia, cuando no se ha podido realizar el Plan General, que es algo en lo que se debería estar trabajando. Una vez más chocan la necesidad y la disponibilidad. Es cierto que hay que replantearse la

plantilla y que hay que hacer un estudio que determine si los departamentos están bien dimensionados, pero siempre hay que diferenciar entre lo que sea necesario y lo que sea posible. Continúa diciendo que se ha reducido la dotación de personal, se han dejado plazas sin cubrir y que, asimismo, se han reducido muchos otros gastos. Todo indica, añade, a que se debe seguir reduciendo gastos. Para unos la prioridad será reducir los secretarios de los grupos políticos, y para otros las prioridades serán otras. Curiosamente, cuando hablan de la calidad de los servicios y de que hay que atender las necesidades de la ciudadanía, eso se reconoce para todos los servicios. En cambio, cuando se trata de la gestión de los Corporativos se piensa que tienen que desdoblarse, ser "superman" y trabajar 28 horas al día. Entiende que los grupos políticos para desarrollar su labor debidamente necesitan ordenadores, personal auxiliar, técnicos, etc. Esa es su opinión. Para finalizar indica que la relación de puestos de trabajo que se trae a aprobación es la correcta, la adecuada y, la posible.

* Burgos jaunak (Alkarbide), bere botoaren nondik norakoari buruz nabardura bat egin nahi duela esan du. Horrela, ekonomia aldetik dauden egoeran egonda —doiketak egitea eta plaza zenbait

* Interviene el Sr. Burgos (Alkarbide) y en relación al sentido de su voto puntualiza que, estando de acuerdo con la racionalización que se ha hecho de la plantilla ya que económicamente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bete gabe uztea, baina beharra izango balitz aurrekontua jartzeko konpromisoa hartuta—, ados dago gauzak arrazionalizatu behar direla esaten dutenekin, baina ez dator bat pleno-akordioa aplikatu den bezala aplikatzearekin, izan ere, bere aburuz, Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazitakoarekin ados egonik, eurei han esan zena aplikatu baino ez dagokie. Gainontzekoa —dio— berez doa, batez ere kontuan izanik Giza-baliabide Batzordean zera esan zela: pleno-akordioa ez zela aplikatzen interpretazio ezberdinak egiten zituztelako, baizik eta, beretzat aitzaki modura ezarri ziren — berarentzat baliorik ez zutenak— beste gauza batzuengatik zela esan baitzen. Beraz, adierazikoagatik, bera bozketan abstenituko dela, gaineratu du.

hablando están en la situación que están, lo que requiere unos ajuste y dejar unas plazas vacantes siempre con el compromiso de dotarles presupuestariamente en caso de necesidad, lo que no puede compartir es la no aplicación del acuerdo plenario, que desde su punto de vista y compartiendo el argumento del Sr. Murua (Concejal no adscrito), no tiene otra lectura que la simple aplicación de lo que allí se dijo. El resto cae por su propio peso, sobretodo teniendo en cuanta algunas declaraciones que se hicieron en la Comisión de Recursos Humanos en cuanto a que no se aplicaba el acuerdo plenario no por diferencias en la interpretación sino por una serie de cosas que se pusieron como excusa y que a él no le valen. Por todo lo expuesto, va a abstenerse en la votación.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia), berriro, lehengo planteamenduak egin ditu, eta, gainera, talde politikoen behin-behineko langileak kentzeari buruz atxiki gabeko zinegotziek esandakoari Alkateak erantzun dio beharrezkoak direla hautetsiek dituzten eginkizunak egiteko. Haatik, berak Alkateari gogorazten dio atxiki gabeko zinegotziek legegintzaldi osoan ez dutela langile horien laguntzarik izan, eta ahal dutena eginez, eta ahal den lekura iritsiz, uste du erantzukizunez jardun dutela. Orobat gogorazten dio onartzeko ekarri den langile-plantilan bakante uzten dela alderdi Popularreko idazkaria. Berak ez daki ez ote zaion esaten ari alderdi horrek ez dituela bere eginkizunak gainontzeko taldeak bezala egingo.

* El Sr. Murua (Concejal no adscrito) insiste en sus planteamientos anteriores añadiendo, en relación a la eliminación de personal eventual al servicio de los grupos políticos que los Concejales no Adscritos han planteado y en cuanto a lo manifestado por el Alcalde sobre que son necesarios para desarrollar las funciones que tienen asignadas los electos, y le recuerda al Alcalde que los Concejales no adscritos llevan toda la legislatura sin tener personal eventual al servicio del grupo y que cree que han actuado con responsabilidad e intentando llegar a donde han podido. A continuación igualmente le recuerda que en la propuesta de aprobación de la Plantilla que trae a aprobación deja vacante la plaza de secretaría del Partido Pupular, con lo cual, no sabe si se está diciendo que dicho partido no va a poder desarrollar sus funciones como las van a desarrollar el resto de los grupos.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du kontu horri alderdi Popularrak berak erantzun diezaiokeela. Bere

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que el Partido Popular puede responder a esa cuestión. Cree que ese



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

aburuz, alderdi Popularrak, atxiki gabeko zinegotziak bezalaxe, urritasunez eta idazkaririk gabe jardutea erabakiko zuen.

partido habrá optado, al igual que los Concejales no adscritos, por ser austeros y trabajar sin secretario.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du proposamena Alkateak egina dela.

* El Sr. Murua (Concejal no adscrito) señala que la propuesta viene por parte del Alcalde.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du proposamena den bezalakoa dela. Gero, bakoitzak, sistema bati edo besteari heltzeko aukerarik baldin badu, libreki nahi duen aukerari helduko diola.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) le responde que la propuesta es la que es. Cada uno, si tiene posibilidad de acogerse a un sistema o a otro, optará como libremente opine.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta PP), aurkako 8 botorekin (atxiki gabeko zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak) eta 3 abstentzioz (EAJ/PNV eta Alkarbide),

El Pleno de la Corporación por mayoría, con 10 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y PP), 8 votos en contra (Concejales no adscritos y Ezker Batua-Berdeak) y 3 abstenciones (EAJ/PNV y Alkarbide)

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. Onartzea Errenteriako Udaleko Lanpostu-zerrenda. Hots, espedientean jasota dauden funtzionarioena, lan kontratu finkodunena eta behin-behineko langileena.

1.- Aprobar la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento de Errenteria, en la que se incluyen los reservados a funcionarios, a personal laboral y a personal eventual, que obra en el expediente.

2. Argitaratzea, Aurrekontua behin-betikotasunez onartu ondoren, Lanpostu-zerrendaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, (apirilaren 18ko 781/1986 EDA-ren 127. artikuluan xedatutakoari jarraiki).

2.- Publicar, una vez que se entienda aprobado definitivamente el Presupuesto, el texto íntegro de la Relación de Puestos de Trabajo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 127 del RDL 781/1986, de 18 de abril.

**5.- Proposamena: 2011. urterako Errenteriako Udalaren langile-plantila onartzea.**

**5.- Propuesta: aprobación de la plantilla del personal del Ayuntamiento de Errenteria correspondiente al año 2011.**

Udalbatzak, 2010eko apirilaren 30ean, 2010eko aurrekontuaren behin-betiko onespen-ematea zela eta, onartu zuen Udal honetako 2010eko langile-plantila.

Visto que con ocasión de la aprobación definitiva del presupuesto para el ejercicio 2010 el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 30 de abril de 2010, aprobó la plantilla de personal de este Ayuntamiento.

Langile-plantilan 2011rako beharren inguruan eginiko txostenak aztertu dituzte, espedientean jasota daudenak.

Vistos los informes emitidos en relación a las necesidades surgidas en la plantilla de personal para el ejercicio 2011, que constan en el expediente.

Era berean, egungo lan-plantilarekiko 2011ko langile-plantilan eginiko aldaketen azalpen-memoria jasotzen da.

Vista la memoria explicativa de las variaciones introducidas en la plantilla correspondiente al ejercicio 2011 con respecto a la actual.

Aplikatu dakiokeen legerian xedatutakoa kontuan izanik.

Considerando lo dispuesto en la legislación aplicable.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen proposamena ikusi ondoren.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Mintzatu dira:

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du bere jarrera eta botoa aurreko puntuan bezalakoa izango dela, bere aburuz, lanpostuen zerrendak eta langile-plantilak elkarrekin zerikusia dutelako.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du aurreko puntuko iritzi berdina dutela, alde batetik udal taldeen laguntzailea mantentzea planteatzen delako, eta bestetik, lanpostu zenbait dirurik gabe uzten direlako. Horregatik, ez dute proposamenarekin bat egiten eta gaur eguneko beharrei egokitzeko ikerketaren beharra ikusten dute

* Jarraian, Enpresa Batzordeko partaide batek hitz egiteko txanda eskatu du, baina Alkateak, gaia Udalbatzari dagokiolako eta eztabaida politikoa ematekoa, ez dio eman. Gainera, sindikatuek beste bide batzuk dituztela horretarako, esan dio.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta PP), aurkako 8 boto (atxiki gabeko zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak) eta 3 abstentzioz (EAJ/PNV eta Alkarbide),

Se producen las siguientes intervenciones:

* Toma la palabra el Sr. Burgos (Alkarbide) y manifiesta que su postura y votación va a ser la misma que la del punto anterior, ya que piensa que la relación de puestos de trabajo y la plantilla van unidas.

* El Sr. Murua (Concejal no adscrito) manifiesta en euskera que tienen la misma opinión que el punto anterior, puesto que por una parte se plantea el mantenimiento de los auxiliares de los grupos políticos, y por otra, se deja sin dotación económica algún puesto de trabajo. Por ello, no están de acuerdo con la propuesta que se efectúa y ven necesario un estudio para adecuar a las necesidades actuales.

* A continuación pide la palabra un miembro del Comité de Empresa indicándole el Alcalde que ahora no caben sus intervenciones ya que es un tema de Pleno y de debate político y que los sindicatos tienen otras vías y cauces.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría, con 10 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y PP), 8 votos en contra (Concejales no adscritos y Ezker Batua-Berdeak) y 3 abstenciones (EAJ/PNV y Alkarbide)

**E R A B A K I D U**

**LEHENENGO.** Oraingo langile-plantila ondorengo eran aldatzea:

A) Ondoko lanpostua sortzea:

1. Funtzionarioak:

- Ofizial igeltsero bat, C2 sailkapen taldean kokatua (lehen D taldea) eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Berezietako azpi-eskalakoa eta Ofizioko Langileak klasekoa.

**BIGARREN.** Onartzea 2011rako Udal honetako langile-plantila organikoa eta lanpostuak, espedientean jasota dagoena.

**HIRUGARREN.** Aurrekontu-dataziorik gabe uztea langile-plantilan dauden ondorengo plazak, hain zuzen datorren ekitaldian okupatzea ez dagoelako aurreikusia.

- PPko idazkaritza, erdi mailako teknikari bat, bideetako injineru bat, arkitektu bat, administrari laguntzaile bat, laguntzaile tekniko bat, artxiboko laguntzaile bat, aparejadore bat, garbitzaile bat, euskarako irakasle bat, administrari bat,

**A C U E R D A**

**PRIMERO.-** Modificar la plantilla vigente en los siguientes términos:

A) Crear la siguiente plaza:

1. Personal funcionario:

- 1 oficial albañil, encuadrada en el grupo de clasificación C2 (antiguo D) y perteneciente a la escala de Administración Especial, subescala de Servicios Especiales, clase Personal de Oficios.

**SEGUNDO.-** Aprobar la plantilla orgánica de plazas y puestos de trabajo de este Ayuntamiento para el ejercicio 2011 que se adjunta como anexo en el expediente.

**TERCERO**.- Dejar sin dotación presupuestaria las siguientes plazas, incluidas en la plantilla de personal, por no existir previsión de ser ocupadas durante el ejercicio:

- Secretaría PP, un técnico medio, un ingeniero de caminos, un arquitecto, un auxiliar administrativo, un técnico auxiliar, un auxiliar de archivo, un aparejador, un limpiador, un profesor euskera, un administrativo, un suboficial PL, un agente PL y un operario).



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Udaltzaingoko ofizialorde bat, Udaltzaingoko agente bat eta operari bat.

**LAUGARREN**. Argitaratzea langile-plantilari dagokion testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean apirilaren 18ko 781/1986 EDAren 127. artikuluan xedatutakoari jarraiki, beti ere 2011rako aurrekontua behin-betikotasunez onartu ondoren.

**CUARTO.-** Publicar el texto íntegro de la plantilla, una vez se entienda aprobado definitivamente el Presupuesto para el año 2011, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 127 del RDL 781/1986, de 18 de abril.

**6.- Proposamena: 2011ko Aurrekontuaren hasierako onespena.**

**6.- Propuesta: Aprobación inicial del Presupuesto 2011.**

- EB-Berdeak-ek osoko zuzenketa egin zion aurrekontuari. Ez dute onartu. Aldeko botoak: EB-BERDEAK eta ATXIKI GABEAK. Kontrako botoak: ES-SV, EAJ/PNV, PP eta ALKARBIDE.

- Vista la enmienda a la totalidad presentada por EB-BERDEAK que es rechazada con los votos a favor de EB-BERDEAK y NO ADSCRITOS y los votos en contra de ES-SV, EAJ/PNV, PP y ALKARBIDE.

- Atxiki gabeko zinegotziek osoko zuzenketa aurkeztu zion aurrekontuari. Ez dute onartu. Aldeko botoak: EB-BERDEAK eta ATXIKI GABEAK. Kontrako botoak: ES-SV, EAJ/PNV, PP eta ALKARBIDE.

- Vista la enmienda a la totalidad presentada por NO ADSCRITOS que es rechazada con los votos a favor de EB-BERDEAK y NO ADSCRITOS y los votos en contra de ES-SV, EAJ/PNV, PP y ALKARBIDE.

- ALKARBIDEK bi (2) zuzenketa aurkeztu ditu:

- Vista las dos (2) enmiendas presentadas por ALKARBIDE:

a) 3443 erregistro zenbakia duena, Torrekuarako materiala erosteko. 50.000,00 € hainbat materiala erosteko.

a) Con nº de registro 3443 relativa a la adquisición de material diverso para Torrekua por 50.000,00 €, adquisición de material diverso- por dicho importe.

b) 3444 erregistro zenbakia duena, Merkatuzarrerako materiala erosteko 15.000,00€.

b) Con el nº de registro 3444 relativa a la adquisición de material diverso para Merkatuzar por 15.000,00 €

Biak ere mailegua gehituz finantzatuko dira. Biak onartu dituzte. Aldeko botoak: ES-SV, EAJ/PNV, PP eta ALKARBIDE. Kontrako botoak: Atxiki gabeak. Abstentzioa: EB-BERDEAK.

Financiadas ambas con cargo a mayor importe del préstamo a solicitar, que son aceptadas con los votos a favor de ES-SV, EAJ/PNV, PP y ALKARBIDE, el voto en contra de NO ADSCRITOS y la abstención EB-BERDEAK.

- PPk ondoko lau (4) zuzenketa aurkeztu ditu:

- Vistas las cuatro (4) enmiendas presentadas por el PP que son las siguientes:

a) Ondartxo Hiltegia: 12.000,00€

b) Kaleak garbitzeko makinak: 25.000,00€

c) Parkeak egokitzea: 12.000,00€

d)Eskolako Agenda 21 10.000,00€

Mailegua gehituz finantzatuko dira. lauak onartu dituzte. Aldeko botoak: ES-SV, EAJ/PNV, PP eta ALKARBIDE kontrako botoak. Kontrako botoak: ATXIKI GABEAK eta EB-BERDEAK

a) Matadero Ondartxo por 12.000,00€

b) Maquinaria Limpieza de calles por 25.000,00€

c) Acondicionamiento parques por 12.000,00€

d) Agenda escolar 21 por 10.000,00€

Financiadas con cargo a mayor importe del préstamo a solicitar, que son aceptadas con los votos a favor de ES-SV, EAJ/PNV, PP y ALKARBIDE, el voto en contra de NO ADSCRITOS y EB-BERDEAK.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- 2011 Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araudia aztertu da.

- Vistas la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria para 2011.

- Alkate jaunak, zuzenketen eztabaidaren emaitza sartu ondoren, aurkeztutako Aurrekontu-proiektua aztertu da. Diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa **45.905.555,00 €ra** igotzen dena.

- Visto el Proyecto de Presupuesto de la Corporación que, una vez incorporado el resultado del debate de las enmiendas, presenta el Sr. Alcalde, cuyo importe en el Estado de Ingresos, igual que en el de Gastos, asciende a **45.905.555,00€.**

- Adinekoen Udal Egoitzako Patronatuko Gobernu Batzordeak aurkezturiko Aurrekontu-proiektua aztertu da. Diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa **4.972.300,00 €ra** igotzen dena.

- Visto el Proyecto de Presupuesto del Patronato de la Residencia Municipal de Ancianos, que presenta la Junta de Gobierno, cuyo Estado de Ingresos, al igual que el de Gastos, asciende a **4.972.300,00€.**

- Errenteria Musikal Patronatuko Gobernu Batzordeak aurkezturiko Aurrekontu-proiektua aztertu da. Diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa **2.067.872,00 €**ra igotzen dena.

- Visto el Proyecto de Presupuesto del Patronato de Errenteria Musikal, que presenta la Junta de Gobierno, cuyo Estado de Ingresos, al igual que el de Gastos, asciende a **2.067.872,00€.**

- Udalaren Kirol Patronatuko Gobernu Batzordeak aurkezturiko aurrekontu-proiektua aztertu da. Diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa **890.000,00 €ra** igotzen dena.

- Visto el Proyecto de Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes, que presenta la Junta de Gobierno, cuyo importe en su Estado de Ingresos, igual que en el de Gastos, asciende a **890.000,00€.**

- Bestalde, Errenteria Garatuz Sozietate Publikoaren behin-behineko aurrekontua aztertu da. Guztira **1.733.010,00 €ra** igotzen dena.

- Visto el Presupuesto Provisional de la Sociedad Pública Errenteria Garatuz cuyo importe asciende *a* **1.733.010,00€.**

Oarsoaldea S.A.ren aurrekontua aztertu da. Udalak **566.300,00€** jarri behrko ditu.

Visto el Presupuesto de Oarsoaldea, S.A. cuya aportación municipal asciende a **566.300,00€.**

🗗 Osotara, finkaturiko Aurrekontu-proiektuaren diru-sarrerak zein gastuen zenbatekoa, **51.889.065,00 €** da.

🗗 Visto el Proyecto de Presupuesto consolidado cuyo estado de Ingresos, igual al de gastos asciende a **51.889.065,00€.**

🗗 Udal kontu-hartzaileak 2011ko martxoaren 3an eginiko txostena aztertu da. Bertan adierazten du proiektua hasierako defizitarik gabe azaltzen dela.

Visto el informe del Sr. Interventor Municipal de fecha 3 de marzo de 2011, en el sentido de que dicho Proyecto se presenta sin déficit inicial.

Ogasuna Batzordearen proposamena ikusi ondoren.

Vista la propuesta de la Comisión de Hacienda.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du Aurrekontu hau osoko bilkurara atzerapenarekin datorrela esan dietela. Berak, eurek ere ez direla perfektuak, erantzun du. Gaineratu duenez, handik urrun ez diren herri zenbaitek, gehiengoa izanda ere, aurrekontuak duela 15 egun pasatxo eraman dituzte, nahiz eta, egun horiek, dauden egunetan egonda, garrantzitsuak izan daitezkeen. Edonola ere, osoko bilkura honetara Aurrekontua ekarri dute, eta berori, diru-sarreretan zein gastuetan, 45.905.555 eurora iristen da. Aurrekontu honetan, Alkateak esan duen moduan, ez da erraza izan kontuak parekatzea, izan ere, aurten ez dute joan den urtean bezalako ezhoiko diru-sarrerarik izango. Horrela, lan eta ahalegin dezentea egin ostean, erdietsi dute zenbakiak parekatzea. Hori horrela, zeharkako zergekin 9 milioi euro pasatxo jasoko dituzte,

* Toma la palabra el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y manifiesta que se les ha dicho que este Presupuesto viene con mucho retraso al Pleno a lo que responde que tampoco ellos son perfectos. Añade que hay vecinos por aquí cerca, que disfrutando de cierta mayoría, han llevado presupuestos poco más allá de 15 días antes, aunque quizás esos días, dado las fechas en la que están, puedan ser importantes. En todo caso, dice, traen a este Pleno un Presupuesto que en su doble vertiente de ingresos y gastos asciende a 45.905.555 euros. En este Presupuesto, dice, como explica el Alcalde en su memoria, no ha sido fácil cuadrar las cuentas. Este año no han contado con ingresos extraordinarios como ocurrió el año pasado. Después de bastante trabajo y esfuerzo se ha conseguido que los números cuadren. Sigue diciendo que por impuestos indirectos se recaudan algo más allá de 9

zuzenekoekin 450.000 euro, tasa eta beste zergekin 7.800.000 euro, ohiko transferentziekin 24.500.000 euro, ondare-gehiketekin 56.000 euro, salmentekin 156.000 euro, kapital-transferentziekin 2.057.000 euro. Kapital-transferentziak, berriz, nagusiki Eusko Jaurlaritzatik etorri ohi dira, izan ere, Beraungo igerilekurako 200.000 euro jarri ditu, Basanoagako igogailurako 124.000 euro, Merkagunerako 170.000 euro, Odartxoko hiltegia berritzeko 200.000 euro; Energiarako Euskal Erakundeak 217.000 euro energia-efizientziagatik, eta Foru Aldundiak 600.000 euro Beraungo igerilekurako. Diru-sarrera propioak %1,30 igoko dira (I., II. eta III. kapitiluak) eta ohiko transferentziak %3,92

millones de euros, por directos 450.000 euros, tasas y otros impuestos 7.800.000 euros, las transferencias corrientes asciendên a 24.500.000 euros, los incrementos patrimoniales 56.000, la enajenación de inversiones 156.000 euros y las transferencias de capital 2.057.000 euros. La transferencia de capital principalmente viene del Gobierno Vasco que aporta 200.000 euros para las piscinas de Beraun, 124.000 euros para el ascensor de Basanoaga, 170.00 para merkagune, 200.000 para la reforma del matadero de Ondartxo, el Ente Vasco de la Energía, 217.000 por la eficiencia energética y la Diputación que aporta 600.000 euros para las piscinas de Beraun. Los

inguruan daude. Horiek Udal kontu-hartzaileak adierazitako duda-muda guztiekin. Ondoren, esan du 1.523.000 euroko kreditu bat hartu beharko dutela inbertsioak egiteko lehendik hartuta dituzten konpromiso zenbaiti aurre egiteko. Gastuen atalean, berriz, langileen ordainsariek eramaten dute gehien. Hots: 15.240.000 euro, %33 inguru hain zuzen ere; II. kapitulua: 14.000.000 euro, %30 inguru; ohiko transferentziak 7.800.000 euro; benetako inbertsioak 3.620.000 euro; kapital-transferentziak 325.000 euro. Finantza-pasiboak, ostera, 4.348.000 eurora iristen dira; zorraren korrituak amortizatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuli beharrekoaren herena da. Gaineratu duenez, horixe da nola-hala egin ahal izan duten Aurrekontua. Ziur aski —dio— ez da hoberena izango, baina uste du lehendik hartutako konpromisoei aurre egiteko Aurrekontua dela. Jarraian, esan du pasa den urteko otsailean, 2010eko Aurrekontua eztabaidatu zutenean, esan zuten egoera oso konplikatua zela; denbora luzez geratzeko etorri zela, eta herritarrek diru-sarrerak gehitzen saiatu beharko zutela eta tentuz begiratzen beroriek —batzuei bezala— jaitsi ez zitezen, zeren eta ordurako langabezia gehitzen ari baitzen, eta hor murrizketak Udal honetan emango diren baino handiagoak baitira. Izan ere, bati enpresak ordaintzetik uzten dioenean eta INEMen bidez

ingresos propios tienen un aumento del 1,30% (Capítulo I, II y III) y las transferencia corrientes están en 3,92%, con todas las reservas y dudas que les plantea el Interventor Municipal. Sigue diciendo que habrá que recurrir a un crédito de 1.523.000 euros para hacer frente a algunos compromisos de inversiones que tienen adquiridos. En la parte de gastos, la remuneración del personal es la cifra más importante, 15.240.000 euros, en torno al 33%, el Capítulo II son unos 14.000.000 euros que es el 30%, las transferencias corrientes 7.800.000 euros, inversiones reales 3.620.000 euros, transferencia de capital 325.000 euros. Los pasivos financieros ascienden a 4.348.000 euros, la amortización de intereses de la deuda suma la tercera parte del dinero que había que devolver a la Diputación Foral de Gipuzkoa. Añade que este es el Presupuesto que han conseguido pergeñar. Seguramente no sea el mejor, pero creen que es un Presupuesto con el que pueden hacer frente a los compromisos adquiridos. Seguidamente indica que en el mes de febrero del año pasado dijeron, cuando discutieron el Presupuesto del año 2010, que la situación era muy complicada, que había venido para quedarse mucho tiempo y que los ciudadanos habrían de intentar aumentar sus ingresos y cuidarse mucho de que sus recursos no se vieran disminuidos como ya algunos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Estatua ordaintzen hasten zaionean —hori amaitzen baita—, soilik %60 jasoko du lehenengo sei hilabetetan, eta gero, %40 hileko. Gai horri buruz lehendik zeukan iritzi bera du, apika, zuzendua eta gehitua ez badu. Beraz, lehen esan duen moduan, krisia denbora askoan geratzeko etorri da. Beharbada —dio— ez da soilik krisia, bere aburuz, ziur aski, puntu horretara iritsitakoan, sekula ez utzi beharreko xenda bat hartu beharko baitute berriro, zeren eta, orain gertatzen ari dena, bere iritziz, hurbilago baitago benetako ekoizpenetik. Amaitzeko, Udalbatzari eskatzen dio Aurrekontuak ontzat jotzeko, hori jakinik berandu samar dabiltzala eta —esan den bezala, araudia bete gabe—, ez direla hori egiten duten bakarrak.

venían experimentando, porque el paro seguía aumentando por entonces y ahí los recortes son más drásticos que el recorte que se ha llevado a cabo en esta Casa. Cuando a uno deja de pagarle la empresa y empieza a pagarle el Estado a través del INEM, aparte de que eso se termina, dan el 60% los seis primeros meses y a partir del sexto mes el 40%. La opinión que tiene al respecto sigue siendo la misma, incluso corregida y aumentada. Como ha dicho, la crisis ha venido para quedarse mucho tiempo. Quizás no sea tal crisis. Llegados a este punto es bastante probable que se esté retomando una senda que seguramente no habría que haber abandonado porque lo que ahora está pasando se acerca más a la realidad productiva. Para finalizar solicita al Pleno de la Corporación que dé el visto bueno a este Presupuesto aunque hayan acudido a el un poco tarde, como se ha dicho, incumpliendo la normativa aunque, repite, no son los únicos.

* Burgos jaunak (Alkarbide) uste du 2011ko Aurrekontua, alderdi sozialistako bozeramaileak eta Ogasuneko ordezkariak adierazi duen moduan, etenik ez duen krisia baten barruan kokatu behar dela, eta beraz, Aurrekontua berdindu ahal izateko hainbat zenbaki egin behar izan dituztela. Gustatuko litzaioke nabarmentzea azken hiru urte hauetan diru-sarrerak 13 bat milioi jaitsi direla, eta ondorioz, asko zailtzen dela Aurrekontua oparotasunean edo beste iturrietatik dirua barra-barra etortzen zen bezala egitea. Haren arabera, egoera ekonomiko horrekin saiatu dira, lan serioa eginez, ohiko gastuak murrizten, eta modu horretan, ia-ia bi milioi eta erdi euro jaistea lortu dute. Bere iritziz, horrek ez du suposatzen Errenteriako Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuetan inolako murrizketarik emango denik, besteak beste, murrizketa hori kontratuak, BEEL direlakoak eta departamentuetan alferrikako gastuak kenduz egin ahal izan dutelako. Aitatu dituen puntu horien barruan dago, halaber, 2010eko

* El Sr. Burgos (Alkarbide) cree que tienen que enmarcar el Presupuesto del 2011, como ha dicho el portavoz del partido socialista y al mismo tiempo Delegado de Hacienda, dentro de una crisis continuada lo que ha posibilitado, de una manera muy justa, poder terminar juntando una serie de números para poder cuadrar el Presupuesto. Le gustaría remarcar, añade, que en tres años el nivel de ingresos recibidos han tenido una caída de unos 13 millones de euros, lo que complica sobremanera hacer un presupuesto en las mismas condiciones que se estaba haciendo con “las vacas gordas” o cuando los ingresos por otras fuentes estaban en su auge. Continua diciendo que con ese panorama económico lo que ellos han intentado ha sido, en base a un trabajo serio, intentar una reducción del gasto corriente para paliar el déficit de ingresos, llegándose a una reducción de casi dos millones y medio de euros. Cree que ello no ha supuesto ninguna merma de las prestaciones que el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dekretuen bidez murrizturiko langileriaren soldata. Haren arabera, oso zaila izan da departamentu zenbaitetan, partida eta Udalak ematen dituen zerbitzuetan murrizketak egitea, besteak beste, aurreko urteetan ere murrizketak egin izan zituztelako. Hala eta guztiz ere, lehen aitatu dituen ohiko gastuetan murrizketak egin izana, uste du, ona dela hurrengo Udalbatzarentzat, izan ere, lanean jarrai dezaten bidea markatuta edukiko dutelako. Eta kostuak murrizteko politikan oinarritzea ona dela uste du —diru-sarrerak txikiagoak badira— oreka erdiesteko. Hitz eginez jarraitu du, eta, bere aburuz, diru-sarrera txikiago horiek eragina izan dute eta izango dute inbertsioetan. Bera

finantzatzeko era duten inbertsioez ari da, zeren eta, horiei aurre egin beharko baitiete, eta ondorengo urteetako aurrekontuetan eragina izango dutelako, gainera, lehen esan den moduan, ondorengo udalbatzek gastu-murrizketa horrekin, eta zerbitzuak emanez, aurrera jarraitu ahal izateko, hau da, finantzatzeko modua duten inbertsioekin, ahal duten tokietan, lanean jardunez, eta batez ere, aurrekontuak diru-sarreren arabera berdintzen saiatzeko.

Ayuntamiento da a los ciudadanos de Errenteria, porque esa reducción viene dada por una revisión, a conciencia, de contratos, TROES y por un plan de reducción de gastos superfluos en todos los departamentos. En la relación que ha dado, dice, también está incluida la reducción que se ha hecho en el tema de personal, en base a los decretos del año 2010. Continua diciendo que ha resultado muy difícil llegar a esa reducción en algunos departamentos, partidas y servicios que presta el Ayuntamiento porque ya se venía de unas fuertes minoraciones en años anteriores. A pesar de todo ello, cree que la reducción a la que ha hecho referencia en el gasto corriente es un buen arranque para marcar las pautas para que próximas

Corporaciones tengan los puntos marcados para seguir trabajando, en base a esa política de reducción de costes, en un equilibrio presupuestario mejor, si los ingresos no responden. Sigue diciendo que, lógicamente, ese ingreso menor ha tenido, y va a tener, repercusión en el tema de inversiones. Se han centrado en las inversiones que vienen con financiación afectada por lo que van a poder hacerles frente y van a intentar que ello se vea reflejado en los sucesivos presupuestos, marcando, como decía, las pautas de funcionamiento de cara a que las siguientes corporaciones puedan seguir por esa línea de reducción del gasto corriente y de los servicios, trabajar con las inversiones con financiación afectada allí donde se pueda y, sobretodo, intentar cuadrar los presupuestos según vayan llegando los ingresos.

* Peralta andreak (PP)esan du berak berresten dituela Ogasuna batzordean zuzenketen aferarekin izandako eztabaidan esandakoak. Bere iritziz, Udal honek egoera ekonomiko txarra du. Hori, gainera, ez da bakarrik Udal honetako kontua, halaxekoa delako Estatukoa eta Eusko Jaurlaritzakoa ere. Gaineratu duenez, lehen aitatu

